

OARSO TELEBISTA.

Gema Lasarte

Oarso Telebista zer den esatea lan zail xamarra da; oraingoz jende askoren ilusio meta baizik ez baita. Dena den, gisa horretako proiektu zail batek ilusio asko eta sinesmen gehiago behar du aurrerabidea egin ahal izateko. Denborak emango ahal dio, baldin bere arrazoia apostuari, ez da apostu makala eta.

Meta egin ahal izateko, metaziria eta belar ondua behar izaten dira. Biak dira inportanteak gainera, haizeak braustako batian meta belarra eraman ez dezan. Guk oraingoz metaziria jarri dugu. Antena jarria baitugu kaxko-kaxkuan eta seinaliari esana: ibili munduan. Esaten dute, metaziria egiteko egurrik onenak gaztaina edo arkazia direla. Gu ere ahalegindu gera libre zegoen frekuentziarik txukunena hartzen, 57a. Hala eta gutziz ere oraindikan probatan ari gera.

Seinalea, esan bezala, jarria daukagu eta gutxiena espero denean asteroko informatiboei eta dokumentalei ekingo diegu. Agian zuk ere baduzu ezagutzera eman nahi duzun dokumentalen bat, horrela izanez gero jarri gurekin harremanetan. Halere, datorren urtean hasiko gera bazterrak astintzen, bailaran gertatzen dena zure etxera egunero eramaten. 97a. da OTB lau haizetara ezagutzera emango den urtea.

Hasieran banion ba, metaziria jarria dagoela eta gero etorriko direla belar-ontzeak. Zuek esan beharko duzue zer meta klase egingo dugun, belar ondutik belar ondura salto ederra egoten baita. Gure aldetikan, euskara, bailara eta herri telebista izatea ditugu helmuga. Euskara euskaraz egingo dugulako.

Bailara? Bai, Oarsoaldea edo Oiartzualdea hartu ditugulako barrutizat. Bailarak garai batean zuen izatea berreskuratzea arrontian ez badugu lortzen ere, eginahalak egin gabe ez garelako geratuko. Aileka honetako kezka, ekonomia eta garapena izango ditugu uztarri eta gurdi. Eta herri telebista? Bai horixe, bertako informazioa eta denon artean egingo izatea espero dugulako, eskolan ikasten ari diren seme-alabak ez badira aiton-amonak estudioetan izango baititugu.

Urte honetan seinalea jartzean gain promozio lana, lan taldeak osatu eta Oarso Fundazio Kulturala sortu dugu. Oarso Fundazioak mila kide bereganatu ditu eta horixe nahi genuen hain xuxen ere, ahalik eta jendetzarik handiena OTBren sorrera babestera etortzea. Euskalduna, eskualdekoa eta kontsentsuaren bidetik sortutako telebista nahi dugulako. Herriak egingo, instituzioek babestua eta gertatzen denaren zubia izango dena. Hortxe dago metaziria beraz, orain denon esku dago meta belar ederra egitea edo belar-xorroko xixtrin batian gertzea. Ate guztiak zabal-zabalik daude eta laguntza klase guzietan estimazio handia egiten dio OTBk. Gurekin sintonizatu nahi baduzu aurkierrazak.



OTB Aurkezpena.